



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

HONDAKINEN FORU PLAN BARRIAK BIZKAIA “ERREFERENTE” BIHURTUKO DAU HAMARKADA HONEN AMAIERAN, SORTUTAKO 5 KILOTIK 4,9 APROBETXETEA LORTUKO DAUALAKO

- **Amaia Antxustegi Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala zaintzeko diputatuak, lehen seihileko honetan foru arau moduan izapidetuko dan PIPGRB 2030aren aurrerapen bat emon dau Bizkaiko Batzar Nagusietan.**
- **Aldundiko arduraduna Batzar Nagusietako taldeek eskatuta be joan da Parlamentura, Granada errekan izandako isurien eta Artigasko usain txarren konponbidearen barri emoteko, besteak beste.**

(Bilbon, 2022ko urtarrilaren 20an). Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraunkortasun eta Ingurune Naturalerako batzordeak Amaia Antxustegi diputatuaren agerraldia hartu dau gaur, Batzar Nagusietako taldeei kudeaketaren inguruko sei gairen barri emoteko. Berak halan eskatuta, Aldundiko arduradunak Bertako Eskumeneko Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Bizkaiko Plan Integralaren (PIPGRB 2030) aurrerapena emon dau. Plan horren bidez, Bizkaia “erreferente” bihurtuko da hondakinen kudeaketan, eta “punta-puntako” lurraldea izango da hondakinak tratetako moduan. Horretarako, ekonomia “zirkularren” aldeko apustua egingo dau, eta prebentzinora zuzendutako programak hobetuko ditu, hondakinak murrizteko eta birziklatu ezin diran hondarrak errebalorizetako.

Honaino heltzeko emon diran pausuak zehaztu ostean, Antxustegik, une honetan luzatuta dagoan II PIGRUB ordeztuko dauen planak barne hartzen dituan programa nagusien printzipioak, helburuak eta aurrerapen bat azaldu ditu. Bere sailak urte honetatik 2030era arte markau ditu. Holan, diputatuak “punta-puntakoa” eta “barrizaillea” izentau dauen planaren bidez, Bizkaiak hondakinak % 15 - % 20 bitartean jeistea lortu gura dau 2019gaz alderatuta. Ganera, barriri erabilteko prestaketako tasak % 20 handitu gura ditu, eta etxeko hondakin arriskutsuen gaikako bilketea lurralde osora zabaldu, % 100ean. Udal-hondakinen berrerabilpen- eta birziklatze-tasea (balorizazio materiala) % 79,83koa izatea, energiaren ikuspegitik balorizautako hondakinen ehunekoa % 20 baino gitxiagora jeistea eta udal-hondakinen isurketa-tasea (tratauak eta tratau bakoak) % 2,49an ezartea dira planteetan diran beste helburu batzuk. Azken finean, Bizkaiak 5 kilotik 4,9 kilo aprobetxatu gura ditu. Horreetako lau ekoizpen-katean sartuko dira barriri eta beste 0,9 kilo energia barriztagarria sortzeko baliako dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Planak foru arau izaerea izango dau, eta 2025ean barrikusiko da, diputatuak baieztu dauenez. Seihileko honetan bertan egingo da Parlamentuko tramitazioa Batzar Nagusietan, hilebete honetatik aurrera udalek eta, ostean, herritarrek, eskualdeko topaketen bidez, horren eukia aztertu eta gero. Interes-talde handi horreen (udalak, mankomunidadeak eta herritarrak) ekarpenaren ostean, plana Bizkaiko Parlamentuan onartu beharko da, hemendik 2030era bitartean Bizkaiak inoiz lortu bako birziklatze-mailak lortu daizan, Antxustegik iragarri dauenez.

ISURKETAK ORTUELLAN ETA USAIN TXARRAK ARTIGASEN

Beste gai batzuei jagokenez, Aldundiak garrantzia kendu deutse Granada errekan, Ortuellan, azaroan antzemandako isurketei. Antxustegik baieztu dauenez, eurite handiek zuloa eragin eben ibaiadar hori isurtzen dan lurpeko galerian. Hasiera batean, errekan antzemandako isuriak BTB enpresak egin ebazala pentsau zan, baina EH Bilduren galderei erantzunez Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuak ziurtatu dauenez, “haren jardureagaz zerikusirik ez dauen gertaerea” izan zan. Lursailen jaubeak, Gabiker foru-enpresak, egindako analisisien ostean, ondorioztatu da antzemandako materialak –meatzaritzako jardueratik eratorritako lohiak eta asfaltozko materialak– “inerteak” zirala osasunerako. Diputatuak baieztu dau daborduko lanean ari dirala lurpeko urak “barriro kanalizetako” proiektuan, baina itxaron egin beharko dala lurzorua “orekatu” arte, egin beharreko ikuskapenak egiteko.

Horrez gain, koalizino abertzaleak eskatuta, Antxustegik Artigasko zaborteziaren inguruko usain txarregaitik azalpenak emon ditu. Raul Mendez batzordekidearen eretziz, usain horreek Alonsotegin, Kastrexanan eta Zorrotzan sumau daitezke egun honeetan, baita Kadaguako korridorean dabilzan ibilgailuetan be, leihatila edegita eroan ezker. EH Bilduk galdetu dau Aldundiak zer hobekuntza-jarduera egin dituan plantan, enpresa espezializau batek 2020an egindako txostenaren gomendioetan oinarrituta.

Antxustegik txostenean jasoten ziran jarduketan –hiru gomendio– garapena errepasau dau, bai eta bere sailak bere ekimenez usainak kentzeko bere gain hartu dituan beste jarduketa batzuen be. Jarduketa horreen arteko azkena joan dan urrian egin zan, eta Artigaseko plantako lixibatuen hiru baltsetako bat estaltzea izan da. “Datozan asteetan” ganerako biak estalduko dira, eta “hori, ingurunean sortutako eragozpenak minimizetako behin betiko pausua izango da”. Txostenak esaten dauenez, hidrogeno sulfuroa eta amoniakoa aidean pilatzeak eragiten ditu eragozpen horreek. Kasu bietan, “ez dira legezko parametroak gainditzen”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

AHOZKO ERANTZUN-ESKEAK

Oposizinoak eskatuta, Antxustegik mendien erosketa publikoaren erespideei, lur-jausiei eta baso-politikari eta Audio eta Orozko artean parke eolikoa egiteari buruzko ahozko erantzun-eskeei erantzun deutse.

Lurrak erosteko eta baso autoktonoa sortzeko inbertitutako lau milioiei jagokenez, diputatuak argitu dau, Elkarrekin Bizkaiaren galderei erantzunez, Aldundiak lehentasuna emoten deusela, lurraldearen gainerakoagaz alderatuta “euren errentagarritasuna edo baso-aprobetxamendua nabarmen aldatzen eben murrizketak eukiezan lurrei”, “mendi babesleak, naturgune babestuak, baso-intereseko mendiak, ekologia- eta paisaia-korridoreak eta kultur intereseko eremuak ziranen barruan etiketetan ziranei”, hain zuzen be.

Azaroko eta abenduko eurite handien ondorioz, hainbat lursail mobidu egin ziran. Horren aurrean, Elkarrekin Bizkaiak galdetu dau ia zer neurri hartuko dituan Aldundiak baso-politikan, lurzoruak egonkortzeko eta lur-jausiak saihesteko. Antxustegik adierazo dauenez, Aldundiak “lanean jarraituko dau mendi publiko eta pribaduetako baso-estaldurari eusteko”. Horrek, Bizkaia lurralde “erresilienteagoa” egiten dau beste batzuekaz alderatuta eta musturreko euri-fenomenoen aurrean. Talde moreak baso-politikaren inguruan egin dauen kontaketea kritikau dau. “Okerra da”, urte amaierako lur-jausietan ez dalako ezelango kausa-efekturik egon. Arriskurik handiena “biluzik” dagozan lurzoruetan dago.

Modu berean, foru diputatuak ziurtatu dauenez, bere sailak ez dau Capital Energy enpresak Audio eta Orozko artean parke eolikoa jarteko daukan proiektuaren inguruko ezelango informazinorik. Talde Berezia-PP Bizkaia taldeak gai horren inguruan galdetu deutsonen, Antxustegik esan dau Bizkaiko gizarteak “argi eta garbi izan behar dauela” “ingurumena babesteaz arduratuko garala”, ingurumen-araudia “zorrotz” betez.

ONARTUTAKO ZUZENKETA-ESKEA

Saioa EH Bilduren arauz besteko proposamen baten eztabaideagaz amaitu da. Proposamen horren bidez, Estadu espainiarreko enpresa elektrikoak elektrizidadearen prezioagaz egiten ari diran “iruzur larria” salatu daijala eskatu gura jakon Foru Aldundiari. Ekimenean, Estaduko eta Europako erakundeek “elektrizidade-ekoizleek bakarrik ordainsari justua jasoko dabela bermatzeko beharrezko neurri guztiak hartzea” eskatzen zan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Azkenik, proposamena egin dauen taldeak Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen osoko zuzenketa-eskea onartu dau, Elkarrekin Bizkaiaren babesagaz, eta Talde Berezia-PP Bizkaia taldeko ordezkariaren ezezkoagaz, sei puntu honeekaz:

- 1.- Batzar Nagusi honeetan ordezkaturik dagozan alderdi politikoei, Euskadin energia barriztagarriak ezarri eta energia aurreztearen alde daben konpromiso politikoa berretsi daiela eta herritarren artean zorrotasun- eta egiatasun-erespideen araberrako kontzientzia bizten lagundu daiela, modu horretan errazago jardun ahal izango dalako energia-trantsizinoan eta klima-aldaketearen erronkei emon beharreko erantzunean.
2. Espainiako Estatuko Gobernuari, lanean jarraitu daiela energia-trantsizinoaren aldeko politikak aurrera erooten, eta kontsumitzailea eskariaren erdigunean ipiniko dauen merkatu barri bat garatzeko arauak diseinatu daizala, energia-hornidura garbia, merkea eta segurua izateko helburuagaz.
3. EAeko lurralde- eta toki-erakunde guztiei (aldundiak, udalak, mankomunitateak, kuadrillak...), energia-trantsizinoan daben egitekoa beteten jarraitu daiela eta faktore erabagigarriak bultzatu daiezala efizientzia, energia barriztagarriak eta energiakudeaketarako kooperatibak eta komunitate energetikoak bultzatzeko.
4. Arlo ekonomiko, sozial, politiko eta akademikoko eragile publiko eta pribatuakaz lankidetzan jardun daiela, guztien artean urtenbideak sortu daitezazan energia-eskariak eta haren prezioak dakarren erronka komunari erantzuteko.
5. Eusko Jaurlaritzari, 2022ko aurrekontuetan gizarte larrialdietarako laguntzak ordaintzeko behar diran aurrekontuzukidurak kontsignatu daizala.
6. Eusko Jaurlaritzari, 2022ko gizarte-larrialdietarako laguntzen aginduan neurriak ezarri daizala energia gastuetan gehienez finantzatu leiteken zenbatekoa igotzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

EL NUEVO PLAN FORAL DE RESIDUOS CONVERTIRÁ A BIZKAIA EN “REFERENTE” A FINALES DE ESTA DÉCADA AL CONSEGUIR APROVECHAR 4,9 DE CADA 5 KILOS GENERADOS

- La diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Amaia Antxustegi, ofrece en las Juntas Generales de Bizkaia un avance del PIPGRB 2030, que será tramitado durante este primer semestre como norma foral.
- La responsable foral acude también a la Cámara vizcaína, a petición de los grupos junteros, para informar de los vertidos emitidos en el arroyo Granada y de la solución a los malos olores en Artigas, entre otras cuestiones.

(Bilbao, a 20 de enero de 2022). La comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de las Juntas Generales de Bizkaia ha acogido hoy la comparecencia de la diputada Amaia Antxustegi para informar a los grupos junteros acerca de seis cuestiones referentes a su gestión. A petición propia, la responsable foral ha ofrecido un avance del Plan Integral de Prevención y Gestión de Residuos de Competencia Local de Bizkaia PIPGRB 2030, el cual llevará a Bizkaia a ser un “referente” en la gestión de residuos y un territorio “puntero” en la manera de tratar los mismos, apostando por la economía “circular”, y mejorando los programas que van dirigidos a la prevención con el propósito de reducir los desechos y conseguir mayores cotas de revalorización de los restos que no puedan reciclarse.

Después de detallar los pasos que se han ido dando para llegar hasta aquí, Antxustegi ha explicado los principios y objetivos del plan y ha hecho un avance de los principales programas que incluye la hoja de ruta que sustituirá al II PIGRUB –actualmente prorrogado- y que su departamento se ha marcado desde este mismo año y hasta el 2030. Así, con este plan que la diputada ha definido de “puntero” e “innovador”, Bizkaia quiere conseguir una reducción de residuos del 15% respecto a 2010 y de un 20% de envases ligeros con respecto a 2019. Además, quiere elevar las tasas de preparación para la reutilización en un 20% y cubrir en todo el territorio, al 100%, la recogida selectiva de los residuos peligrosos del hogar. Alcanzar una tasa de reutilización y reciclaje (valorización material) de residuos municipales del 79,83%, reducir el porcentaje de los residuos valorizados energéticamente a menos de un 20% y establecer la tasa de vertido de residuos municipales (tratados y sin tratar) en un 2,49%, son otras metas que se plantean. En definitiva, Bizkaia quiere aprovechar 4,9



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

kilos de cada 5 kilos, cuatro de ellos se reintroducirán en la cadena productiva y otros 0,9 kilos se aprovecharán para la generación de energía renovable.

El plan tendrá carácter de norma foral y será revisado en el año 2025, según ha confirmado la diputada. Este mismo semestre se llevará a cabo la tramitación parlamentaria en las Juntas Generales una vez que el contenido del mismo sea testado, a partir de este mismo mes, por los municipios y, después, por la ciudadanía a través de encuentros comarcales. Tras la aportación de estos grandes grupos de interés (ayuntamientos, mancomunidades y ciudadanía), el plan deberá ser aprobado en el Parlamento de Bizkaia para conseguir que, de aquí a 2030, Bizkaia alcance cotas de reciclaje “nunca antes conseguidas”, según ha augurado Antxustegi.

VERTIDOS EN ORTUELLA Y MALOS OLORES EN ARTIGAS

En otros asuntos, la Diputación ha restado importancia a los vertidos que fueron detectados en el arroyo Granada, en Ortuella, en noviembre pasado, debido, según ha confirmado Antxustegi, a las altas precipitaciones de lluvia registradas que provocaron un socavón en la galería subterránea por el que fluye dicho afluente. En un principio se pensó que los vertidos detectados en el arroyo fueron realizados por la empresa BTB, pero la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural ha asegurado que fue “un hecho ajeno a su actividad”, a preguntas de EH Bildu. Tras los análisis realizados por Garbiker, empresa foral que es la propietaria de los terrenos, se ha concluido que los materiales detectados –lodos procedentes de la actividad minera y material asfáltico– eran “inertes” para la salud. La diputada ha confirmado que se está trabajando ya en un proyecto de “re canalización” de las aguas subterráneas, si bien habrá que esperar a que el suelo se “equilibre” para realizar las oportunas inspecciones.

Asimismo, Antxustegi, también a petición de la coalición abertzale, ha dado explicaciones por los malos olores existentes en el entorno del vertedero de Artigas. Según el apoderado Raúl Méndez, estos hedores son perceptibles en Alonsotegi, Kastrexana y Zorrotza durante estos días y también en los vehículos que circulan por el corredor del Kadagua si se viaja con la ventanilla abierta. EH Bildu ha preguntado por las actuaciones de mejora que ha desarrollado la Diputación en la planta en base a las recomendaciones de un informe que fue elaborado en 2020 por una empresa especializada.

Antxustegi ha hecho un repaso del desarrollo de las diferentes actuaciones que se incluían en este informe –tres recomendaciones– y de otras que su departamento ha asumido por iniciativa propia para acabar con los olores. La última de estas actuaciones se ha desarrollado en octubre pasado, y ha consistido en la cubrición de una de las tres balsas de lixiviados de la planta de Artigas. “En próximas semanas” se taparán las dos



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

restantes, lo que será “un paso definitivo para la minimización de las molestias producidas en el entorno”, y que, según el citado informe, están provocadas por la acumulación en el aire de sulfuro de hidrógeno y amoniaco. En ambos casos, “no se superan los parámetros legales”.

PREGUNTAS ORALES

A petición de la oposición, Antxustegi ha respondido a diferentes preguntas orales sobre los criterios de compra pública de monte, los corrimientos de tierra y política forestal, y la instalación de un parque eólico entre Llodio y Orozko.

En cuanto a los cuatro millones invertidos para la compra de terrenos y el fomento de la creación de bosque autóctono, la diputada ha aclarado, a preguntas de Elkarrekin Bizkaia, que la Diputación prioriza las tierras “que presentaban restricciones y que alteraban sensiblemente su rentabilidad o aprovechamiento forestal” con respecto al resto del territorio, y que se encuadraban dentro de lo que vienen a ser “montes protectores, espacios naturales protegidos, montes de interés forestal, corredores ecológicos y paisajísticos, y áreas de interés cultural y recreativo”.

A raíz de las grandes precipitaciones de lluvia de noviembre y diciembre, que provocaron diversos desplazamientos de terrenos, Elkarrekin Bizkaia ha preguntado también por las medidas que va a adoptar la Diputación en su política forestal para estabilizar los suelos y evitar corrimientos de tierra. Antxustegi ha señalado que la Diputación “seguirá trabajando en el mantenimiento de la cubierta forestal de los montes públicos y privados” que es la que hace que Bizkaia sea un territorio “más resiliente” respecto a otros sitios y frente a fenómenos extremos de lluvia. Ha criticado la relación que ha hecho la formación morada de los corrimientos con la política forestal. Es “errónea”, ya que no ha habido “ninguna causa-efecto” en los derrumbamientos de fin de año. “El mayor peligro está en los suelos desnudos”, ha dicho.

Asimismo, la diputada foral ha asegurado que su departamento “no tiene ningún tipo de información” sobre el proyecto de instalación de un parque eólico entre Llodio y Orozko fomentado por la empresa Capital Energy. Preguntada por esta cuestión por el grupo Mixto-PP Bizkaia, Antxustegi ha asegurado que la sociedad vizcaína “no tiene que tener dudas” de que “velaremos por la protección del medio ambiente” haciendo cumplir “escrupulosamente” la normativa medioambiental.

ENMIENDA APROBADA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La sesión ha concluido con el debate de una proposición no de norma de EH Bildu con la cual se quería instar a la Diputación a que denunciase “el grave fraude” que están cometiendo las empresas eléctricas del Estado español con el precio de la electricidad. En la iniciativa, se instaba a que las instituciones estatales y europeas adoptasen “cuantas medidas sean necesarias para garantizar que los productores de electricidad sólo perciban una remuneración justa”.

Finalmente, el grupo proponente ha aceptado una enmienda a la totalidad de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, apoyada también por Elkarrekin Bizkaia, y que ha contado con el rechazo del representante del grupo Mixto-PP Bizkaia, que incluía los siguientes puntos:

- 1.- Reafirmar el compromiso político de los partidos representados en esta cámara con la implantación de energías renovables y el ahorro de energía en Euskadi, contribuyendo a crear una conciencia ciudadana con rigor y veracidad que facilite actuar en consonancia con la transición energética y el desafío que presenta el cambio climático.
2. Al Gobierno del Estado español a seguir trabajando en políticas de transición energética diseñando las reglas para desarrollar un nuevo mercado que ponga en el centro de la demanda al consumidor/consumidora con el objetivo de disponer un suministro de energía limpia, barata y segura.
3. A todas las instituciones territoriales y locales (Diputaciones, Ayuntamientos, Mancomunidades, Cuadrillas...) de la CAV, a que sigan ejerciendo su papel en la transición energética e introduzcan factores determinantes para el impulso de la eficiencia, de las renovables y las cooperativas y comunidades energéticas de gestión de energía.
4. A colaborar con agentes públicos y privados de ámbito económico, social político y académico para co-crear soluciones al desafío común que supone la demanda energética y su precio.
5. Al Gobierno vasco a que consigne en sus presupuestos de 2022 las dotaciones presupuestarias necesarias para la cobertura de las Ayudas de Emergencia Social.
6. Al Gobierno vasco que en la orden de ayudas de emergencia social del 2022 se establezcan medidas para elevar el límite financiable a los gastos de energía.